# UNITATEAREN EGITURA

## Motibazioa

Unitatean murgiltzeko, gai baten inguruko zenbait testu dituzu irakurtzeko eta, galderei erantzunez, ulertu dituzun egiaztatu eta bertan esaten denari buruzko iritzia eraikitzen lagun diezazuten, beti ere ikuspegi kritikoa landuz. Aurrez, ordea, irakurri aurreko galdera batzuekin ere egingo duzu topo, gaiari bete-betean heldu aurretik, horri buruz dakizuna gogoratzeko.

Jarraian, gaiaren haritik lexikoa lantzeko orrialde bat aurkituko duzu eta, ondoren, ahozko komunikazioa lantzeko beste bat. Azken horretan, ahozko adierazpenak egiteko proposamenak eta elkarrenak baloratzeko aukerak eskaintzen dira.




## Komunikazioa

Atal honetan, lau orritan, idatzizko komunikazioa landuko duzu. Bertan, hainbat testu motaren ezaugarriak aztertu, testu mota bakoitza ulertzeko estrategiak ezagutu eta komunikazio egoera zehatzetara egokitutako testuak ekoitzi ahal izango dituzu.



DBH 3 Unitatearen egitura (2-3) 9/3/05 17:55 Página 3



## Hizkuntza aztergai

Hizkuntza txukun erabiltzeko arauak menderatzea beharrezkoa da. Eta, horretarako, ondo "entrenatzea" garrantzitsua da. Horregatik, ariketa ugari eskainiz, "entrenamendu" hori egiteko aukera ematen dizugu.

Atal honetako azken orrian, JAKINGAIAK izenekoan, euskal kulturaren eta hizkuntzaren hainbat kontu jakiteko aukera duzu. Bertako azalpenei arretaz jarraituz, euskararen inguruko hainbat bitxikeria ezagutzeko aukera izango duzu!



## Literatura

Atal honetan literaturgintza landuko duzu. Unitatez unitate literaturaren ahalik eta ikuspegi zabalena erakusten saiatu gara; modu horretan, literaturan zer eta nola egiten den jakin ahal izango duzu. Eta horren hausnarketa egiteko eta iritzia emateko bideak erakutsiko zaizkizu eta, modu horretan, literaturaren mundua hurbilago sentitzeko aukera izango duzu.



## Irakurtzeko proposamenak

Hiruhilabete bakoitzean, orri batean liburu batzuk aurkezten zaizkizu. Orrialde horretan honako informazio hau duzu: zeri buruzko liburuak diren, nork idatziak diren, eta ikasle batzuen iritziak. Ikasturtean zehar irakur ditzakezun liburuak dira.

## Autoebaluazioa

Hiruhilabete bakoitzaren amaieran, test bati erantzunez, nola ibili zaren eta zer zailtasun izan dituzun jakin ahal izango duzu. Bertan, aukera eskaintzen zaizu irakaslearen aurrean hobera egiteko konpromezua hartzeko.